

8.- FUNTSEZKO JARDUERAK

Produkzioa aurrera egiteko informatiko bat kontratatuko dugu eta berari proiektuaren diseinua eta errealizazioa erakutsiko diogu berak aplikazioa sortzeko. Informatiko APP-etan trebea izan behar da, bere buruaz aprobetxatuko bahit gara. Guk gure ideiak eta nahiak adieraziko dizkiogu berak lana aurrera eraman dezan.

Nahiz eta ideia asko izan, kanpoko laguntza ere behar dugu, horretarako gure ingurugiroko pertsonen galderak egingo dizkiegu idei ezberdinen bila, aplikazio anitza izango dugularik.

Behin aplikazioa sortuta guk probatuko dugu arazoren bat egongo balitz konpontzeko eta ondoren, lagin talde bat hartuko dugu beraietan produktuaren ikerketa egiteko eta aztertzeko. Gurasoei banatuko dizkiegu galdetegi sorta bat produktua ebaluatzeko, onurak eta desabantailen azterketa egiteko.

Ikerketaren emaitzaren arabera merkaturatuko dugu, emaitzak txarrak izanez gero aldatzeko denbora edukiko dugu.

APP bat izanez etengabeko berrikuntzak eta aldaketak izango ditu, eta hori ebazteko prest egon behar gara.

